


AIURRI

BETERRI-BURUNTZAKO ASTEKARIA



URNIETAR BAT JUPITER AZTERTUKO DUEN 'JUICE' SATELITEAREN OPERAZIO BURU

Ignacio Tanco Europako Agentzia Espazialean lanean ari da, bizitoki duen Alemaniako Darmstadt hirian bertan: "Operazio burua naiz" / 2-3

AIRBUS

Bidez bide zerbitzua

Andoaingo eta Urnietako zerbitzu publikoa, baserri eremuan bizi diren adinekoentzat / 6

Errefusari dagokion edukiontzi eta sistema berria, urtarrilaren 21etik aurrera Andoainen / 7

Matrikulazio kanpainaren aurretik, ate irekiera saioak Andoainen eta Urnietan / 14

Zertan gastatu aurrekontuko 150.000 €?

parte hartuz

Aurkeztu zure proposamenak

Proposamenak aurkezteko epea:
urtarrilaren 8tik 28ra bitarte

INFORMAZIO KARPAK

Urtarrilak 18,
ostirala:

- 10:00-14:30.
Etxeberri plaza.
- 17:00-20:00.
Guria ondoan.

Urtarrilak 19,
larunbata:

- 10:00-14:30.
Kiroldegi kanpoaldean.





Hiru hamarkada luze daramatza etxetik urrun. Ikasten, aurrea, lanean gero. AIURRI

Ignacio Tanco: Orbitak, sateliteak eta pasioa

Oso lanbide berezia dauka: “sateliteak gidatzen ditut”. Pasioa dario hitz bakoitzean, eta astronomia, mundu ezezagun hori, ulerterraz bilakatzen du bere azalpen sinpleekin. Ignacio Tanco da. Darmstadt (Alemania) eta espazioaren artean bizi den urnietarra

Andoni Urbistondo URNIETA

Ordubete eman du solasaldiak, baina bi edo hiru izan zitezkeen. Ignacio Tancori bere lanaz galdetzeak arrisku hori dauka. Hasten dela hitz egiten, eta ez

duela bukatzen, espazioa bezalaxe. Senideak bisitatzen ari da, Gabonak diren aldiro bezala. Urnietak pertsonai ezagun, ilustratze asko ditu, eta Ignacio multzo horretako podiumean jarri behar-

ko litzateke. Bera bezalako inor, edo gutxi ezagutuko duzulako. Non eta zure lagun koadrilako kideak ez diren satelite operadoreak! Ignacio hala da. Sateliteak eraman, gidatzen ditu Europako

Espazioaren Agentzian, Darmstadt-en. ‘Juice satelitearen operazio buru da, hain zuzen ere, eta lurtarrontzat informazio baliotsua biltzea da bere erronka potoloena: “Egunen batean gure planeta maitetik ihes egiteko beharrean bagaude, badaezpada”.

Ignaciok betidanik eduki izan du garbi zer izan, ikasi nahi zuen: espazioan, edo espazioarekin zerikusia zeukan zerbait. “El Diario Vascok argitaratzen zuen zientziari buruzko atala, ostiralean. Voyager espazio-zundak Neptuno pasa zuela irakurri nuen, eta orduan konbentzitu nintzen: nik hori egin nahi dut”, dio. Marianistas ikastetxeko informatika irakaslearen bitartez beka bat eskatu zuen AEBetan, Illinoisko unibertsitate batean. Lau urte egin zituen han, ingeniari-tza aeronautikoa ikasten. “3.5eko nota gainditu behar zen urtero, 4tik, bekari eusteko, eta jakina, asko ikasi behar izan nuen”. Gauza asko utzi zituen hemen, baina ez da damutzen. “Ez naiz iraganera begiratu zalea, behin erabaki bat hartuta. Erabakiak hartu egiten dira, eta kito. Orain, zer gertatu den ikusita, erabaki zuzena izan zen, poztasun pertsonal eta profesional handia ezagutu baitut”.

Unibertsitatea bukatuta, krisi ekonomiko handi samarra omen zeukaten AEBetan, “garai txarra lanposturen bat bilatzeko”, eta urtebete ikasten jarraitzea erabaki zuen Michigango Unibertsitatean, espazio-ontzien erakuntzan espezializatua. 90. hamarkada hasieran hainbat konstelazio bidali zituzten espaziora, eta Motorola etxeak Iridium satelite bidezko sakelakoaren proiektua abiatu zuen orduan. “Sekulako dirutza erabili zuten, eta langile piloa behar zuten. Gure ikasgelako guztiak batera kontratatatu gintuzten”. Virginian egon zen lau urtez lanean. Unibertsitatean egun emaztea dena ezagutu zuen, eta bertan etxea erosi zuten, “gure tokia hura izango zelakoan”. Baina...

“Kontua da gu, europarrok, eta beraiek, estatubatuarrek, oso ezberdinak direla, hainbat kontutan. Ez nintzen erabat eroso sentitzen han, Europan baino muturreko joera markatuagoak daude, oinarritzko kontuetan. Esaterako, gehien duenak zerga gehiago ordaintzea normaltzat jotzen da hemen, ba han ez dute onartzen, guk Europan onar de-

zakegun bezala. Edo lan sistema bera. Nik lau egun opor izan nituen lehen lan urtean, eta laugarrenean hamar egun baino ez. Eta zubiak, astebete Gabonetan eta beste... Ezer ez”. Trukean, han dagoen lan aukera itzela omen. “Ikasketak bukatu eta 6-9 hilabetean lan talde bat neukan nire ardurapean, eta sateliteak bidaltzen ari nintzen/ginen espaziora, konstelazio bat eraikitzen. Hori orduan ez zegoen Europan, geroago iritsi da”.

Europarako jauzia

12 orduko lan txandak egin zituzten emazteak eta biek, bost urte luzez: “06:00tatik 18:00tara lau egun, arratseko 18:00tatik 06:00tara beste lau egun, eta hurrengo lau egunak libre. 70 satelite jarri genituen espazioan, konstelazioaren martxa ikaragarria zen, baina inbertsioa ere itzela, eta lortzen zituzten bezeroak, oso gutxi. 1999an porrot egin zuen enpresak, baina AEBetako Gobernuak gurea enpresa estrategikoa izango zela erabaki zuen, eta Boeing enpresari jabetza ia-ia musu truk eman zioten. Haiek, noski, estatubatuarrek ez ziren guztiak martxa egin genezakeela erabaki zuten”.

Lan bila hasi zen Ignacio, eta Italiara joan, zientzia-satelite bat bidaltzeko espaziora. Emazteak hilabete batzuk gehiago egin zituen Virginian, baina berehala Europara etorri eta Alemanian, Darmstadt -en lortu zuen lana. “Printzipioz Italian elkartzekoak ginen, nik gustukoa bainuen Avezzano, Apeninoen bihotzean. Espaziora bidaltzen ziren sateliteen kontrol gune batean aritu nintzen... Behin satelitea bere tokian jarrita, ba beste lan bat bilatu behar izan nuen”. Mars Express proiektuan, Martera eraman behar zen satelite batean aurkeztu zen. “Ez neukan eskarmenturik halako planeta arteko jardunetan, baina saiatu nintzen. 2001 urtea zen. Ez nuen lortu, baina egin zidaten elkarrizketari esker Rosetta proiektuan lortu nuen postua, Alemanian, emaztearekin batera”. Eta orduz geroztik han errotu da. “Zenbaitetan, sentitzen duzu ez daukazu halako erabakimenik zure etorkizunaren inguruan. Ni gustuko nuen lana zegoen tokira joan izan naiz beti, ez alderantziz”.

2003an Europako Espazio Agentziak lanpostu finko bat eskaini zion, ordura arte kanpo langilea



"Operazio Burua naiz, eta orain Juice izeneko satellite batekin nabil lanean. Jupiter-era joateko lanean gabiltza". TANCO

zelako, "eta hala segitzen dut egun. Operazio burua naiz, eta orain Juice izeneko satellite batekin nabil lanean. Jupiter-era joateko lanean gabiltza". Operazio burua, satellite operadorea... Jabetzen ote da Ignacio bere lanaren berezitasunaz, zailtasunaz? "Jabetzen naiz, bai. Espainian, adibidez, Madrildik kanpo apenas dago espazio ingeniartzarik. Nik satelliteak eramaten ditut, eta Darmstadt-en badaude euskaldunak. 4.000 bat lagun gabiltza zentro hartan lanean".

Satellite operadorea

Jendea harritu egiten omen da bere lana zein den esaten duenean: "Planeta artean mugitzen diren satelliteak kontrolatzen ditut", esaten duzu, eta jendeak behiak trenari nola, hala begiratzten dizu. Nahiko lanbide arraroa da, bai. Zientzia-fikzio puntu bat du. Baina egiten duguna berezia da, eta daukagun lana hain ezberdina, pribilegiatuak sentitzen garela. Emaitzak bakarrik interesatzen zaizkigu, etekin zientifikoak, eta ez ekonomikoak. Gizatasunaren etorkizuna hobeagoa izan dadin egiten dugu lan". Nabari zaio, bai, gustukoa duela.

URNIETARRAK SATELITEAK GIDATZEN DITU EUROPAKO ESPAZIOA AGENTZIAN, DARMSTADT HIRIAN

Juice sateliteko proiektuan murgilduta dago orain erabat Ignacio. Irakurri azalpena, ea aho bete hortz geratzea saihesten duzun... "Satelliteak Jupiter planetan eta bere ilargi Ganimesen orbita-txertatze bi egiteko erronka dauka. 7 urteko misioa da, 30 hegaldi Jupiter-eko ilargien inguruan. 20 urte atzera halakorik egiteko gai izango ginela esan izan baligute, erota ote geunden esango ligukete. Jupiter-ek eguzki-sistema txiki baten antza handia du, ez dago antzeko beste ezer gurean. Jupiter-etik gertu lau ilargi dauka (Galileo Galileik identifikatutakoak, lau mende atzera): Io, Europa, Ganimeses eta Calisto. Io-k bolkanismo ikaragarria du, orbitatik ikus daitekeena, eta argazki benetan ikusgarriak erakusten dituena. Europa ere oso famatua da, ez baitauka apenas kraterrik, lur azala izotzekoa baita. Lur azal azpian ozeano bat daukala uste da, eta horrek erakusten digu bizitza zantzuak egon daitezkeela bertan. Esan honi galdera ikur guztiak jarri behar zaizkio, halere, baina Eguzki sistematik kanpo nonbait bizitza egotekotan, Jupiter-eko Europa ilargian egon liteke. Ganimeses eta Calistok ere arroka eta izotz nahasketa dute lur azalean, eta litekeena da izotza azpian Ozeanoren bat egotea. Hori ezinbestekoa da, ura derrigorrezko osagaia baita bizitza egoteko. Juice satelliteak ilargi horiek zehatzago esplora-

tzea du helburu, informazioa biltzea. Satelliteak 7 urte beharko ditu hara iristeko, egun daukagun teknologiarekin ezin delako satellitea haraino bidali. Gizakia asko jota ilargira irits liteke, eta hori arrisku handia hartuta. Martera ezinezkoa, eta Jupiter-era, ba pentsa... Robotekin irits gaitezke". Hartu arnasa! Ulertzen erraza, ezta? Tancoren meritua!

Galdetzea ere, gehitxo, agian. Gizakia ilargian egon, egon da? "Noski. Gezurra izan balitz sobietarrek ere antzeko pelikularen bat sortuko zuten, eta ez dute sortu". Egun astronautak espaziora bidaltzeko erabiltzen den teknika hamarkada batzuk atzera Yuri Gagarinek erabilitako teknologiaren nahiko antzekoa omen. Espazioa ezagutzeko bidean kolaborazioa ba al dago, edo arlo horretan ere lehena izateko borroka ezkutua dago? "Lankidetzat, egon, bada. Aurkaritza ere bai. Europako Espazio Agentzia estatubatuar eta errusiarrekin lankidetzan ari da, ez hainbeste txinatarrakin. Ilargiaren urruneko alde-raino iritsi berri dira txinatarrak. Ni poztu egiten naiz, uste dut gizatasunaren lorpena dela, ez

"GIZATASUNAREN ETORKIZUNA HOBEAGOA IZAN DADIN EGITEN DUGU LAN"

txinatarrarena. Eta gure agentziak informazio berria lortzen duenean, ba berdin. Agian mende batzuk barru lurretik hanka egin beharko dugu natura hondamendiren bat gertatzen bada, eta nora joan bilatu beharko da... Kolaborazioa ona da, helburu komuna dugu".

1.000 milioiko proiektua

Europako Espazio Agentziak finantzatzeko sosak Gobernuak jartzen dituzte, "sektore estrategikoa delako". Gastuak handiak direla onartzen du Tancok, baina "zerekin alderatuta? Satellite bat orbitan jartzeko erabiltzen den suziria 200 bat milioi euro balio du, Juice proiektuak 1.000 milioi balio du: jaurtiketa, satellitea eta jarraipen lana, baina 15 urteko proiektua da. Zenbat diru erabiltzen du Europak yogurt-en ekoizpena babesteko? Europako Espazio Agentziaren urteko aurrekontua 3.500 milioi eurokoa da. Zenbat balio du tanke batek? Edo hegazkin-ontzi batek? Zertara bideratu nahi da dirua? Ze begiekin begiratzten zaion, proiektuen kostua beti da ezberdina".

Nolakoa da Ignacioren egunerokoa bere lanean? "Ordutegia malgua da, baina 08:00tan sartzen naiz lanean, eta 17.30-18.00ak aldera egiten dut martxa. Erosoa da. Orain sateliteko operazioak garatzen ari gara, lurreko software guztia osatzen, kontrol lana. Gure ordenagailuari Windows-a kendu, eta beste sistema operatibo bat jartzea bezalakoa. Nahiko lan konplexua da, baina udarako bukatu behar dugu. Bide batez, satelitearen diseinuaren jarraipena ere egiten dugu. Tolosan, Frantzia ekoizten ari dira, eta sei bat astez behin batzartzen gara atal guztiak nola doazen ikuskatzeko. Satellitea 2022an bukatu beharko litzateke, eta urte horretako maiatzetan jaurtitzea espero da".

Alemanian ondo bizi dira. "Bizi baldintzak, sozialki-eta, oso onak dira. Horrek laguntzen du. Egia da klima hotza dela, eta neguan kostea egiten dela, baino tira, ondo bizi gara. Herrimina izan nuen, noski, hasieran, baina galdutakoa baino askoz gehiago irabazi du. Segituan Alemaniako hiritar bilakatzeko azterketa daukat. Donostiara, Urnietara itzultzeko aukera izango banu, ez dakit hartuko nukeen, benetan. Semea eta alaba ditut, Hector eta Lucia, 14 eta 12 urte, eta

oso alemaniarrek dira, hori ere aintzat hartu behar da dagoe-neko".

Etorkizunari buruz ez du hausnarketa handirik egiten: "Hirulau urtera begiratzten dut, ez harago. Hori bukatzean pentsatuko dut zer egin. Baina oinak lur azalean mantenduta". Eta gizatasuna, zer? "Gu joango gara, lekua egin behar dugu, bizitza horrelakoa da. Aukera banu, gizatasuna espezie interplanetarioa izatea nahiko nuke, planetarioa baino. Horretarako teknologiarik ez daukagu, oraindik, baina ez gaude urrun. Belaunaldi batean Martera iristeko teknologia garatzeko gai izan gaitezke. Laster herriar aberatsenek orbita hegaldiak egin ahal izango dituzte, eta interesa eta inbertsioa mantentzen bada, gizatasunak jauzi kualitatibo handia emango luke".

"Ez dago pribatutasunik, dena zaintzen dute"

Sateliteekin lana egiten duen norbaiti gure egunerokoa zaintzen ote duten galdetzea baina ezer hoberik ez. Erantzuna, garbia: "Dena zaintzen dute, baina ez sateliteen bitartez, sakelakoaren bitartez baizik. Pribatutasuna desagertzen da erabat sakelakoa daukazu unetik: zure iritziak, zaletasunak, pentsamenduak... jakin nahi dituenak jakin egiten ditu. Kito. Kontua zera da: gure iritziek nazioarteko segurtasunean ze garrantzi duten". Eta sare horretatik kanpo bizi nahi bada zer? "Ba off-the-grid bizi behar duzu bai edo bai. Alegia, sare elektronikoarekin inolako kontakturik eduki gabe. Horretarako prest al gaude?".

Erreportajea argitaratzerako Darmstadt-en egongo da bueltan. Urnietaja iaioterriko oroitza-pen berri asko eramango ditu berarekin: "Urtero etortzen naiz, eta whatsapp taldea dugu. Zaldundegira afaltzera joaten direnean ikusten ditut. Santa Kruz elkarteak bazkide ere banaiz, eta etortzen naizenean usadio zaharrak mantentzen saiatzen naiz". Satelliteak eramaten dituen urnietar baten abenturak!

"LANBIDE ARRAROA DA, BAI. ZIENTZIA- FIKZIO PUNTU BAT DU. BAINA EGITEN DUGUNA BEREZIA DA"

KOMIKIA

GARBIÑE UBEDA MARRAZKILARIA



ZABALIK

EGUZKI TALDE EKOLOGISTA

Goi-tentsioko lineetan hildako hegazti kopurua gutxitzeko hitzarmena oso atzeratuta dator eta eskasegia da

Goi-tentsioko lineak egokitze eta horrela horietan hildako hegazti kopurua gutxitzeko Iberdrolak eta Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen Sailak izenpetu duten hitzarmena atzeratuta dator eta eskasegia da.

Beharbada baten batek pentsatuko du: "Ekologistek, ohi bezain maximalistak, oraingoan ere botila erdi hutsik ikusten dute". Ba, "baten bat" horri honako datu hauetan erreparatzea proposatzen diogu:

1. Hitzarmenak helburu du 2008ko 1432 Dekretuak linea elektrikoak egokitze ezarritako neurriak eta ardurak praktikan jartzea.

Dekretua onartu zenetik hamar urte luze pasatu dira. Beraz, Hitzarmena oso atzeratuta dator.

2. Hitzarmenaren arabera, Iberdrolak goi-tentsioko 250 dorre egokituko ditu urtero datozen hiru urteetan. Alabaina, Ingurumen Sailak egin duen inbentarioaren arabera, egokitu beharreko 7.000 dorre daude EAEko inguru ahuletan, alegia, mehatxupean dauden hegaztiak igaro, ugaltu, elikatu eta kontzentratzen diren eremuetan. Beraz, hiruko erregela egin bezain pronto konturatuko gara arazoa ez dela soilik dorreak egokitzen oso berandu hasiko

direla, baizik eta erritmoa bizkortu ezean 28 urte itxoin beharko ditugula 2008ko Dekretua beteta ikusi arte. Tira, 28 baino gehiago, hitzarmenean bertan Ingurumen Sailaren inbentarioa osatu beharra dagoela esaten baita. Beraz, hitzarmena eskasegia da, argi eta garbi.

Ingurumen kontseilariorde Elena Morenok nabarmendu du "Iberdrolak elkarlanean jarduteko erakutsi duen jarrera". Nahiago izan du ez aipatu, guk aipatuko dugun bezala, "elkarlanean jarduteko jarrera" horrek zerikusi handia duela honako arrazoi honekin: hainbat urte hartu

beharreko neurriak hartu gabe pasatu ondoren, konpainia elektrikoaren eta batik-batik Iberdrolaren kontrako epaiak hasi dira ematen hegazti babestutako egokitu gabeko lineetan hil direlako. Gogoan izan babestutako espezieak hiltzea delitu ere izan daitekeela.


Kontuan izan linea elektrikoekin elektrokutatu edo talka egitea dela hegaztien heriotza ez-naturalaren kausa nagusia. Kasu honetan, espezie zaurgarrienak handienak dira, batez ere harrapariak, denak legez babestuta. Datu ofizialen arabera, Estatu espainolean urtero 33.000 ale hiltzen dira arrazoi

honengatik, nahiz eta elkarre naturazaleek, SEOk adibidez, datu ofizial hori kopuru errearen oso azpitik dagoela uste duten. Gauzak horrela, konpainia elektrikoak tematuko balira "elkarlanean jarduteko jarrera" ez erakusten, garestitxo atera lekieke.

Bukatzeko, gogorazi nahi dugu joan den abuztuan Eguzkik Ingurumen Fiskaltzan salatu zuela 9 zikoin elektrokutatuta egokitu gabeko linea batean hil zirela, Olaberrian. Udalerrri berean eta arrazoi beragatik, beste zikoina bat hil zen 2017an. Horrelakoak salatzen jarraitzeko asmo sendoa dugu.

POSTONTZIA

Sinatutako gutunak argitaratzeko posta elektronikoak: andoain@aiurri.eus | urnieta@aiurri.eus



AIURRI
BETERRI-BURUNTZAKO ASTEKARIA



www.aiurri.eus

Aiurri eskuragarri:
Ebeiz ebeiz harpidetza-sistema. Andoain urte osoko harpidetza-saria 37 eurokoa da. Urrietan, 31 euro. Ale batzuk eskuragarri kiosko eta merkatalguneetan.

Egoitza Orokorra:
Arantzibia plaza, 4/5-behea. 20140, Andoain
Tel.: 943 300 732
Faxa: 943 300 731
andoain@aiurri.eus
www.aiurri.eus

Zuzendaria: Jon Ander Ubeda.
Erredaktoreak: Xabier Lasa, Olatz Lasa, Andoni Urbistondo.
Maketatzalea: Maddi Trutxuelo.
Kudeaketa, harpidetza: Garbiñe Ugarteandia. izakaritza@aiurri.eus
Publizitatea: Fer Irazu. publizitatea@aiurri.eus
Banatzaileak: Mikel Arregi (Andoain), Axun Jauregi (Urnietan).
Diseinua: Goleña Komunikazio Taldea
Zorion agurrak, merkatu txikia: diseinua@aiurri.eus | www.aiurri.eus
Whatsapp: 619 163 537
Lege Gordailua: SS-1078/04.
ISSN: 1698-4870.
Tirada: 4.000 ale.
Inprimategia: Zeroa Multimedia.

AIURRIK ez du bere gain hartzen aldizkari honetako orrialdeetan kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.

EKOIZLEA: **ERROITZ** **ALJATUAK:** **TOKIKOM**

BI UDALERRIEN BABESAREKIN ARGITARATZEN DA:

ANDOAINGO UDALA **Urnietako udala**

DIRUZ LAGUNDUTAKO ARGITALPENAK:

EURO JAURLARITZA GOBERNUA VASCO **Gipuzkoako Foru Aldundia**

ZIURTAGIA: **Bikain** **BABESLEAK:**

Aiurriko harpidedunak ezinbestekoak dira.

PROTAGONISTA

"Auzotarrak bertan erostera ohituta daude"

ANE ROIG KARRIKA AUZUNeko COVIRAN MERKATALGUNEKO ARDURADUN BERRIA

Erredakzioa ANDOAIN
Abenduaz geroztik, Ana Roig andoaindarrak Gurmendi kaleko Karrika auzoan dagoen supermerkatuaren ardura bere gain hartu du. Langile huts izatetik ardura postuetara igaro da. Auzotarrak eta herritarrak hurbil daitezen, asteburuetako ordutegi berezia nabarmendu nahi du. Auzokoa ez denarentzat, supermerkatua herrigunetik Sorabillara doan Karrika etorbideko azken bihurgunetik gertu dago. Ibaira doan kale bat beherago, zehazki.
Dendaren ardura hartu duzu, duela gutxi. Langile aritu ziren lehenik, eta orain arduraduna zara. Erantzukizun handia al da? Lanaldia beretsua da, aldaketa handiena ordutegian dago. Diru kontuak, fakturazioa... erabaki asko eta ardura handikoak ditut orain. Lehen lan egitearekin nahikoa zen.
Zein da zure erronka nagusia? Gaur gaurkoz, erosleen aldetik oso erantzun ona jaso



Ane Roig. AIURRI

dugu. lana badut, eta ez dut kexa agertzeko motiborik. Zerbitzu hobea eskaintzea, horixe da buruan dudana. Inbertsioa egin dut, eta horri buelta ematea da nire lehentasuna.

Zer nolako funtzioa betetzen du auzo bateko dendak? Hau ez da nik sortutako ekimena, berrogeita hamar urte dira ireki zenetik. Auzotarrak bertan erostera oso ohituta daude. Euren

egunerokotasunean txertatuta dago gure dendara hurbiltzea. **Auzotarra izango da, eta adinekoa, bezeroen artean gehiengoa. Oker al gabilta?** Gehienbat bai, baina gazte jendea ere hurbiltzen hasi zaigu eta hori guretzat lagungarria da. **Zer da supermerkatuan erosleei eskaintzen diezuna?** Eskaintza bereziak egiten ditugu astero, baina bertako barazkiak eta fruta edukitzen saiatzen naiz. Andoaingo txerrikiak ditut, haragia bertakoa da ere. **Andoaingo inguruko auzoetatik hona hurbiltzeko eskaintza berezirik egiten al duzu?** Lehen esandakoaz gain, igandean eta jai egunetan supermerkatua goizez zabalik dago. Ezustean, jai egun batean, senitarteko edo lagunarteko bazkari bat etxean antolatu behar duenak hemen aurkituko gaitu. Horrez gain, Eguneko ogia eta prentsa erosteko aukera dago hemen.

AUZOTARREN EGUNEROKOTASUNEAN TXERTATUTA DAGO DENDA, DUELA 50 URTE IREKI ZENETIK

HAU ERE BADUGU!

Bidelaguna egitasmoa garatzeko laguntza



La Salleko elektronikako talde batek emakumeen aurkako erasoei aurre egiteko gailu elektroniko bat diseinatzea aztertzen ari dira. Inkesta egiteari ekin diote.

Mintzalagunak egitasmoa



Andoaingo Mintzalaguak egitasmoa abiatzeko kanpaina burutzen ari dira. Laburbilduz, euskara praktikatu nahi duenari zuzenduta dago. Euskaraz bizitzeko aukera eskaintzen da, modu horretan. Informazioa: (943 300 831).

ANDOAIN

GUGANDIK HASITA

INFORMAZIO GUNEAK

GURE HELBURUA, BIRZIKLATZE MAILA IGOTZEA

Ontza elkartearen ondoan	Urtarrilak 21, astelehena	10:30-14:00
Bazkardo plaza	Urtarrilak 21, astelehena	16:00-19:30
Merkatua	Urtarrilak 22, asteartea	10:30-14:00
Dr. Huizi (eskailera mekanikoak)	Urtarrilak 22, asteartea	16:00-19:30
Agustin Leiza (Daitona)	Urtarrilak 23, asteazkena	10:30-14:00
Nafarroa plaza	Urtarrilak 23, asteazkena	16:00-19:30
La Salle etorbidea (BM)	Urtarrilak 24, osteguna	10:30-14:00
Bekoplaza	Urtarrilak 24, osteguna	16:00-19:30
Zumea plaza	Urtarrilak 25, ostirala	10:30-14:00
Aiztondo (Karrika)	Urtarrilak 25, ostirala	16:00-19:30



Andoaingo alkate Ana Carrerek, Urnietako alkate Mikel Pagolak, Hernaniko gizarte zerbitzuetako zinegotzi Xabier Lertxundik eta Behemendi elkarteko Juan Karlos Alberdik eta Begoña Berastegi gidariak parte hartu zuten aurkezpen ekitaldian. **AIURRI**

"Adinekoentzat beharrezkoa da"

Urnietako aurkezpen ekitaldian, Behemendi elkarteko Juan Karlos Alberdik Bidez Bide herrien arteko garraio zerbitzua nondik datorren gogora ekarri zuen. "Orain hamabi bat urte Nekazal eremuetan baserriz baserri azterketa egin genuen, jakiteko ea zein egoeratan bizi zen bertako jendea. Zenbait ondorio atera ziren. Adibidez, ohartu ginen kaleko jendearekin alderatuz gero, baserri giroko jendearen batz besteko adina hogeitaz igotzen zela. Gabezien artean, nabarmendu zen adinekoek garraio zerbitzua behar izaten zutela, nahiz eta seme-alaben babesa eduki. Era horretan, orain hamar bat urte, eta aipatutako behar horri erantzuteko Hernani, Urnieta eta Andoaingo Udalek, Behemendirekin batera, Bidez Bide zerbitzua martxan jartzeko garaian bat egin zuten".



Behemendiko Alberdi. **AIURRI**

Bidez bide zerbitzua

Urnietako, Andoain eta Urnietako baserri eremuetan bizi diren adineko pertsonen, eta baita mugikortasun arazoak dituztenei ere, Behemendi landa garapenerako erakundeak eta udalek garraio zerbitzua bermatzen diete

Xabier Lasa URNIETA

Furgoneta egokitu baten zerbitzua eskaintzen diete, anbulatortzara joateko edota erosketak egiteko lagungarri zaiena. Joan

zen astean, Udal ordezkariak ibilgailu berria aurkezpen ekitaldia egin zuten Urnietan. 45.000 euro inguruko kostua izan du ibilgailu berriak; eta gastu ho-

rren erdia egokitzapen lanetara bideratu da. Ibilgailu berriak zazpi erabiltzaileentzako tokia dauka, gidariak gain. Aipatu Udalek bere gain hartzen dute

zerbitzuaren kostua eta ibilgailuaren mantenua, eta Gipuzkoako Foru Aldundiko Nekazaritza eta Landa Garapenerako departamendua ibilgailua eros-teaz arduratu da.

Bidez Bide ekimena

Halaxe izena du ekimenak, eta astelehenetik ostiralera goizeko 08:00etatik 12:00etara eskaintzen dute zerbitzua. Abian jarri zenetik, zerbitzuak hainbat egin-kizun bete izan ditu: mugikortasun gutxiko edo eta 65 urtetik gorako pertsonak herriko zer-

bitzu publikoetara hurbiltzea, erabiltzaileen autonomia sustatzea, gizarte bazterketa saihestea eta baserri eremuko harremanak eta loturak sustatzea.

Hiru udal ordezkariak Bidez Bide zerbitzuak eskaintzen duen erabilgarritasuna eta funtzio soziala azpimarratu zuten, nekazal gunetako biztanleei zerbitzua erabitzeko gonbitea luzatu zuten. Helburuen artean Beterri-Buruntzako gainerako hiru herriak ekimenara biltzea da.

Eskualde mailako ekimena

Beterri-Buruntza eskualdeko bost udalek gizarte-bazterketa egoeran dauden pertsonen gizarteratze eta laneratzea helburu duen "Auzolan Berri" programa martxan jartzeko hitzarmena sinatu dute

Erredakzioa URNIETA

Andoain, Urnietako, Astigarraga, Hernani eta Usurbil Beterri-Buruntza eskualdeko bost udalek "Auzolan Berri" programa martxan jartzeko hitzarmena sinatu dute. Lau urteko iraupena izango duen lankidetzaren hitzarmena eskualdeko udalen gizarte zerbitzuen eta enplegu sailen artean jaio da. Xede nagusia hau da: Urteztar gero

zarte-bazterketa egoeran dauden hamabost pertsonen gizarteratzea eta laneratzea sustatzea. Egitasmoa martxan jartzeko bost udalerriek hurrengo lau urtetarako 52.875 euro bideratzeko konpromisoa hartu dute.

Egitasmoa 2019ko martxoan martxan jartzea aurreikusten dute eta, nagusiki, bi garai izango ditu: Hasiera batean, parte hartzaileari lau hilabetez luza-

tuko zaion formazio ibilbidea eskainiko zaio. Aurtengoan oinarritzeko gozogintzan trebatzeko 330 orduko formazio profesionala, 80 orduko lan-praktikak, gaitasun pertsonalak lantzeko saioak eta jarraipen pertsonalizatua jasoko du ikasle bakoitzak.

Ondoren, lehen fasea amaituta, ikasleei enpresa pribatu batean lan hitzarmena lortzen



Egitasmoaren berri urtarilaren 11n egin zuten. **GARAPENAGENTZIA**

lagunduko diete. Horretarako pizgarriak eskainiko dituzte eskualdeko enpresen artean, 3.000 eta 6.000 euro artekoak. Beti ere kontratazioarako diru-laguntzak izango dira.

Lehen edizioa aurrera ateratzeko, Udalek Erroak bergizarteratzeko elkartearen lankidetzaren izango dute. Aldundia eta Europako Funts Soziala finantzazioan laguntzaile izango dira.

Sistema berrirako ontzi berriak Andoainen

Datorren astelehenetik aurrera, Andoaingo Udala errefusa bereizteko sistema berria herrigune osoan ezartzen hasiko da. Txipa izango guten edukiontziak berri berriak izango dira, Mankomunitateak aste honetan iragarri duenez

Erredakzioa ANDOAIN

Hondakinak ondo bereiztea, horixe da helburua. Hori baita birziklapen tasa igotzeko aukera onena. Gaur gaurkoz Andoaingo bilketa datuak, hobetuz doazen arren, nahiko apalak dira. Hori dela eta, datorren astelehenean hasita, Andoaingo Udalak errefusa bereizteko sistema berria martxan jarriko du. oraingoan, herrigune osora zabalduko da. Argibide guztiak joan zen astean eskaini zituzten prentsaurrekoan, eta bitartean herriar bakoitzak informazio zehatza jaso du etxeko buzoian.

Mankomunitatearen iragarpena

Udalaren kanpainarekin batera, Tolosaldeko Mankomunitateak oharra argitaratu du Andoainen txertatuko diren edukiontziak berri berriak izango direla iragartzeko: "Organikoaren bilketarako jarri diren edukiontziak bezalakoak izango dira, baina gris kolorekoa. Bilduko duten hondakin mota taparen kolorearen arabera bereiztuko da. Errefusaren kasuan, ezaguna den bezala, gris kolorekoa. Eskualde osoan errefusaren bilketarako 147 edukiontzi berri txertatuko dituzte. Gauzak horrela, horietako asko Andoainen ezarriko dituzte.



Datorren astelehenean hasita, Udalak edukiontzi berria herri osora zabalduko du. AIURRI

Informazio puntu ibiltaria, Andoaingo Udalaren eskutik

Argibide guztietarako bi hezitzaile ibiliko dira Andoaingo kaleetan, puntu jakinetan. Herriar bakoitzak etxeko buzoian kanpainaren xehetasun guztiak jasoko ditu, eta baita informazio guztiaren datak, ordutegia eta tokiari buruzko informazioa ere.

- Urtarrilak 21, astelehena: 10:30-14:00 Ontza ondoan. 16:00-19:30 Bazkardo plaza.
- Urtarrilak 22, asteartea: 10:30-14:00 Merkatua. 16:00-19:30 Dr. Huitzi.

- Urtarrilak 23, asteazkena: 10:30-14:00 Daytona ondoan. 16:00-19:30 Nafarroa plaza.
- Urtarrilak 24, osteguna: 10:30-14:00 BM ondoan. 16:00-19:30 Bekoplaza.
- Urtarrilak 25, ostirala: 10:30-14:00 Zumea plaza.

ORGANIKORAKO ERABILTZEN DEN TXARTEL BERDINA ERABILI AHAL IZANGO DA

Mankomunitatearen ohararazpena

Tolosaldeko Mankomunitateak beste kanpaina bat indarrean jarri du, materia organikoaren edukiontzia loturikoa. Ohartarazpen zehatza da: "Eskualdeko biztanle gehienak ezin hobeto ari dira materia organikoaren gaikako bilketa egiten. Halere, herriarren ehuneko txiki batek oraindik poltsak lurrean uzten ditu, edota ez du ondo bereizten. Eta

jokabide horiekin arrisku larrian jartzen du gainerakoen ahalegina. Horri aurre egiteko edukiontzi marroietan oharra jarri dira, eta erabilpena ikuskatzeko kanpaina burutuko da". Mezua zehatza da: Edukiontzi marroian materia organikoa bakarrik utzi behar da. Honako aholku errazak jarraitzea garrantzia handikoa da:

- "Hondakin organikoak poltsa konpostagarrietan utzi behar dira, inoiz ez plastikozko poltsetan. Udalak doan banatzen ditu poltsa konpostagarriak".
- "Pixoiak ez dira inoiz edukiontzi marroian utzi behar".
- "Iraungitako elikagaiak edukiontzi marroian utzi behar dira, baina lehendabizi ontzia edo bilgarria kendu behar zaizkie.



Edukiontzi gris berria Urnietako landa eremuan txertatu dute. URNIETAKOUDALA

Aldaketak Urnietako baserri eremuko hondakin bilketan

Sarrailadun edukiontzi grisa ezarri dute, bertako bizilagunek egunero erabiltzeko aukera izango dutelarik

Erredakzioa URNIETA

Urnietako Udalak aditzera eman duenez, zaborren bilketa sistema berria martxan jarri du landa-gunean. Orain arte indarrean zeuden lurrazpiko edukiontzien orde, edukiontzi grisak txertatu dituzte: "Edukiontzi berri horiek sarraila elektronikoa dute, eta erabiltzaile bakoitzak edukiontziak ireki ahal izateko bere txartela izan behar du. Beraz, oraindik txartela jaso ez duenak Udaletxeko Bertan bulegora bila joan beharko du". Ixtearen arrazoiaren artean dago landa eremuan bizi ez diren pertsonak edukiontzi horiek kontrolik gabe eta modu desegokian erabiltzea saihestea.

Baserri eremu horietan errefusaren edukiontzi grisa egunero ireki ahal izango da, "landa-guneko pertsona dezentek edukiontzien irlak etxetik urruti samar dituztelako".

Aldaketa bilketa guneetan

- Bere horretan mantendu dira: Benta, Xoxoka, Besabi, Gurutzeaga, Pagoain eta Saletxeberri.
- Desagertu dira: Bidegurutza, Ormazarreta, Goiko Barkaiztegi, Artolea eta Azkonobieta.
- Berriak sortu dira: Otxotegiko ur biltegia eta Goibieta.

Aldaketarekin hondakin bilketarako sistema berria herrigune osora zabaldu da. Herrigunean aldaketak emaitza onak eman ditu: Udalak emandako datuen arabera, urtebetean %17,7 igo omen da birziklatzea.

ORAINDIK TXARTELA JASO EZ DUEN BIZILAGUNAK BERTAN BULEGOETATIK PASA BEHARKO DU BILA



Udalaren informazio karpa, zabalik asteburuan

Urnietako Udalak 2019rako hamar milioi euroko aurrekontua onartu berri du, eta herritarrek 150.000 euroko partida zertan inbertitzeko edo gastatzeko aukera izango dute. Informazio karpa zabalik izango da ostiral eta larunbat honetan

Erredakzioa URNIETA

Udalak dagoeneko xehetasun guztiak azaldu ditu, aurreko urteetako prozedurari jarraipena emanez. Behin erabakiak hartuta eta informazioa zabaldua, garrantzitsuen falta da: Herritarren parte hartze erreala. Udal agintariek aukera ugari jarri dituzte eskura, baina nolanahi ere, informazio gehigarria jaso nahi duenak asteburu honetan kalean ipiniko duten karpan eskuratu ahal izango du.

Iazkoa, erreferentzia gisa

2018an herritarrek egin zituzten proposamen guztien artetik ha maika gauzatu ziren. Hauexek:

- Lizardi 1-3ko atzealdeko espazioa: Eremua asfaltatu, eserlekuak ipini eta haurrak jolasen aritzeko margolana.
- Arantzubi-Santa Leokadiako barandaren berrikuntza.
- Lekungo tunelaren ondoko atsedene gune berria.
- Eserleku gehiago herriko puntu desberdinetan.
- Txakurrak ibiltzeko gune berriaren egokitzapena.
- Lore gehiagoren landaketa herriko gune esberdinetan.
- Eteneta elkartearen ondoan zebra-bide berria ipintzea.



Informazio karpa ostiralean eta larunbatean zabalik izango da, herrigunean. AIURRI

- Belandi-Akan kalean abiadura mantsotzeko neurriak hartzea.
- Pintore kalean zebra-bide garai bat jartzea.

Gauzatze bidean dira:

- Txoritagaindik Salestarretara doan bidea konpontzeko lanak laster gauzatuko dira.
- Dendaldegia eta Maximo Yurramendi kaleen arteko arrapalaren desnibela jaitea egiteko dago, obra uste baino garestiagoa baita.

Udalak bi gehiago aipatu nahi izan ditu, 2018ko Udal aurrekontuetatik bideratu direnak: Garratza baserrirantz doan espaloia renberrikuntza eta Arrilimoiko zubiko barandaren konponketa.

OSTIRAL ETA LARUNBAT HONETAN INFORMAZIO KARPA ZABALIK IZANGO DA HERRIGUNEAN

- Online: Urnieta APP, www.urnieta.eus.

Kontutan hartzekoak:

Proposamenak egiterako garaian, honako baldintzak bete beharko dira:

- Udal-eskumenekoak: obrak, hirigintza eta mantentze-lanak.
- Bideragarriak: 25.000 euroko kostuaren apizko egitasmoak.
- Iraunkorrak: Ekonomikoki eta finantzieroki.
- Interes orokorrekoa: Herritar guztientzat interesekoa.
- Lurralde oreka: Udalerriko auzoen artekoa.



AIURRI

Antzezlanaren atarikoa AEKn

Egape antzerki taldeak "Sorginak sutara" lana antzeztuko du Saroben, datorren urtarrilaren 26an arratsaldeko 18:00tan. Aurrerapen modura, saio txikia eskaini zieten AEK euskaltegiko ikasleei. Argazkian Luke Goñi, Joxe Mari Berasategi, Vanesa Sanchez eta makurtuta Olatz Iturzaeta eta Laura Claudino. Sarobeko emankizunean helduek eta haurrek parte hartuko dute.

Odol emaleen hitzordu berria

Urnietako Odol emaleen taldeak hilabetearen amaierarako hitzordu berria iragarri du. Urnietarrek, beraz, datorren urtarrilaren 31n odola emateko aukera izango dute. Anbulategi Zaharrean (Denda Berri jubilatuen egoitza), ohi bezala, arratsaldeko 18:30ean hasi eta iluntzeko 20:30ak arte. Esan beharrik ez dago odola ematea garrantzia handiko ekintza dela.



Parte hartze prozesua

Xedea:

2019ko Udal aurrekontu osotik, 150.000 euroko partida zertan gastatu erabakitzeko prozedura irekia.

Aurrekontua:

150.000 euro.

Parte hartzeko epea:

Urtarrilak 8-28.

Parte hartzeko adina:

16 urtetik gorako pertsonak.

Errolda:

Urnietan, ezinbestean.

Informazio karpa:

- Urtarrilak 18, ostirala: 10:00-14:30 Etxeberri plaza. 17:00-20:00 Guria tabernaren ingurua.
- Urtarrilak 19, larunbata: 10:00-14:30 Kiroldegiaren kanpoaldea.
- **Proposamenen entrega:**
 - Kutxak: Bertan, Lekaio, Kiroldegia, Denda Berri, Anbulatorioa, Egape (Azkorte) eta Magale (bi eraikinak).
 - Buzoiak: Udalerriko hainbat puntutan ipinita daude.



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

**KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA**

**DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA**

Kaletxikin zabaldu dute Caritasen biltegi berria

Ama Kandida etorbideko biltegia itxi eta gero, berria zabaldu dute Kaletxikin. Berezi gazteentzako arropa behar dutela jakinarazi dute. Horrez gain, elkartearen martxarekin aurrera egiteko boluntarioen premian direla adierazi dute

Erredakzioa ANDOAIN

Andoaingo Caritas elkarteak Kaletxikin biltegia ireki du, iraganen Edurne kirol denda izan zen egoitzan bertan. Astelehenero eta asteazkeneko egongo da irekita, arratsaldeko 16:00etatik 19:00etara. Bertan, nahi duenak arropa utzi ahal izango du.

Elkarteko arduradunek deia luzatu nahi diete Andoaingo herritarrei, laguntzaileak behar dituztela gogoraraziz. Hiru boluntario behar dituzte, elikagaien eta jantzien sailaz arduratzeko eta asteen behin oinarritzko sukaldaritzari buruzko ikastaroa emateko.

Gainerakoan, benetako beharrei erreparatuta, gazteentzako arroparen premian direla adierazi dute.

Ohiko eginkizunak

Caritasek bere ohiko eginkizunak betetzen jarraitzen du, premia handiak dituztenen alde lan eginez. Eguneroko jardun hori Zumea kaleko egoitzan eta Agustín Leitza Kaleko erretoretxean egiten ari dira.

Eskolaz kanpoko ekintza lagungarri gisa, eskola txikia delakoa martxan dute. Boluntarioki ari diren zazpi irakasle ari dira zeregin horretan. Laguntza osagarri hori jasotzera



Kaletxikin ireki dute gunea berria. AIURRI

berrogei haur hurbiltzen ari dira. Aurten, zazpi irakasle horiek alboan laguntzaileak izango dituzte. La Salle-Berrozpeko eta Leitzarango zenbait ikasle dira, eskola txikian laguntzeko prest daudenak.

ELIKAGAIEN ETA JANTZIEN SAILETARAKO BOLUNTARIOAK BEHAR DITUZTE

Sariketa

"Joxe Mari Olazabalen bidea" sariketa gizarte arloan nabarmendu diren pertsonak edo elkarteak saritzeko eratu zen. Iaz ez zen ospatu, ordea. Elkarteak bi urtetik behin antolatzea erabaki du. Beraz, 2019aren amaiera aldera ospatuko da sariketaren edizio berria.



AIURRI

Hitzordu bikoitza presoan alde

Urtarrilaren 11n presoan eta senideen aldeko bilkura egin zuten Zumea plazan. Andoaingo bi senide preso dagoen senideari bisitaldia egitera joan zirenean jasandako istripua salatu zuten. Biharamunean, herriko hainbat pertsona autobusean abiatu ziren Bilbon deitu zuten manifestaziora.



AIURRI

Tailerrak Lanbide zentroan

La Salle Berrozpe ikastetxean bulegoa duen Lanbide zentroak tailer ezberdinak iragarri ditu, datozen egunetarako. 'Lan elkarriktarako komunikazio eraginkorra' izeneko tailerra urtarrilaren 22an eta 31n eskainiko dute. 'Curriculum Vitae, zein da komeni zaidana?' izeneko urtarrilaren 24an eta 'TICS eta lan bilaketa' izeneko urtarrilaren 29an. Orduetgia tailer guztietan berdina izango da; 09:00tik 12:00ra. Informazioa: 943 59 05 57.

Eguneko albisteak Aiurri.eus gunean



Korrikaren ibilbidea eskualdean barrena



Hegazkin istripua Hernio aldean



Salkin elkartearen zozketa

AIURRI.EUS

ALBISTEAK, ARGAZKIAK, BIDEOAK, AGENDA





Markel Olano eta Ainhoa Aizpuru Iparlat eta Elnelat enpresetako zuzendariekin. GIPUZKOAUS

Hamar milioi euroko inbertsioa

Urnietako Erratzu industrigunean dago Elnelat enpresa, Iparlat taldeko fabrikarik handiena. 200 pertsonak lan egiten dute bertan eta, enpresak adierazi duenez, Gipuzkoako behi esne guztiko ekoizpenaren %98a bertatik kudeatzen dute

Erredakzioa URNIETA

Horrelako tamainako enpresa izanik, eta esnearen sektorean duen garrantzia ikusirik, Urnietako fabrikak eraberritzea behar beharrezkoa du. 2019an lehentasuna ontziratzeke sistemaren eraberritzea da, eta hori aurrera eramateko hamar milioi euroko inbertsioa egingo dutela adierazi dute. Joan zen astear- tean, inbertsio horien berri jaso eta berrikuntzak bertatik bertara ezagutu asmoz, Gipuzkoako Foru Aldundiko ordezkari nagusiak Urnietako Elnelat fabrikara hurbildu ziren. Zehazki, Markel Olano Aihaldun Ekonomia eta Ainhua Aizpuru Ekonomia Sustapena, Landa ingurunea eta Lurralde orekako diputatua. Erratzu industrigunean harrera egin zieten Iparlat enpresa taldeko eta Kaiku kooperatibako ordezkariak.

Elnelat enpresak bidalitako oharrean, Aihaldun Nagusiaren adierazpenak bildu zituzten. Elnelateko fabrikaren egiten ari diren inbertsio eta berrikuntza ahalegina nabarmendu zituen: “Lurraldeko industriak, elikagaien sektorean ere, bere etorkizunerako apustuak berrikuntzan eta bere produktuen kalitatean oinarritu behar ditu. Ahalegin hori Gipuzkoa guztia- ren etorkizunaren mesedetan izango da”.

Markel Olanok fabrikaren oinarrian dauden abeltzainei ere aipamen zuzena egin zien: “Etorkizunera begira modelo hau sendotzen jarraitzeke eta sektoreak planteatzen dituen erronkei aurre egiteko Kaiku kooperatibarekin eta Gipuzkoako abeltzaineekin dagoen lotura eta erlazio estua bermerik one- na dira”.

Izan ere, Kaiku kooperatibako abeltzainak dira Iparlateko fun- datzaileak. Euren da akzioen gehiengoa eta esne hornitzaile- rik handienak ere eurak dira.

Ekoizpen prozesua bertatik bertara

Urtarrilaren 14an egindako bi- sitaldi instituzionalean, Esne- latera hurbidu zirenek ibilbidea egin zuten fabrikaren zehar.. Bes- teak beste, esnekiak ontziratze- ko bost lerro berrietako lehe- nengoaren abiaraztea ikusi ahal izan zuten.

AHALDUN NAGUSIA ETA LANDA EREMUKO DIPUTATUA HURBILDU ZIREN URNIETAKO ESNELAT FABRIKARA

Elnelat enpresa, Iparlat taldekoa



Ekoizpen prozesua Urnietako esnelat enpresan. ALDUNDIA

Ontziratzeke bost lerro berri Urnietako enpresak adierazi duenez, ekoizpenerako ontziratze sistema berritzen ari dira. 2019an zehar, sistema berri hori martxan jartzeko, 10 milioi euroko inbertsioa iragarri dute.



Langile bat ontziratze sisteman lanean. ALDUNDIA

Mercadonaren esne hornitzailea 1992az geroztik martxan dago Urnietako enpresa. 2004tik Mercadonaren esne hornitzaile da. Enpresak emandako datuen arabera, Urnietako fabrikaren 200 langile daude. Iparlat, dena, 400 langileko enpresa da.



Biltegi siste automatizatua, Urnietako fabrikaren. ALDUNDIA

Gipuzkoako 164 abeltzainen esnea 67 milioi litroko bolumena sortzen da urtero, Gipuzkoako behi esne guztiko ekoizpenaren %98a Urnietara iritsiz. Enpresa taldeak, orotara, Euskadin eta Nafarroan 373 abeltzainen 220 milioi litro biltzen ditu urtero.

Omenaldi berria jasoko dute Donostia egunean

Joxe Mari Oiartzabal eta Joxerramon Berrondo Andoaingo musikariei omenaldi bikoitza eskainiko diete bi elkarteek, Donostia egunaren harira. Santiagomendi eta El Sauce elkarteek esker ona azaldu nahi diete

Erredakzioa ANDOAIN

Amara auzoan ospatuko dira bi ekitaldiak, datorren urtarrilaren 20an –igandearekin–, donostiarrentzat urteko egunik handiena den San Sebastian egunean. Lehenengoa, arratsaldeko 20:00etan izango da, El Sauce elkartearen aurrean. Badira hogeitau urte Oiartzabalek elkartearen ereserkia konposatu zuela, baina orduko hura instrumental zen. Danborraren jotzeaz gain, elkarteak kideek ereserkia abestu ere egin nahi zuten, eta horrela bada, doinuari hitzak ipini dizkio Berrondok. Ereserkia osatuta dute, orain, elkarteak kideek. Pozik daude emaitzarekin, eta hori dela eta Andoaingo bi musikariei esker ona adierazi nahi die.

Amara auzoko Santiagomendiren eskutik helduko da eguneko bigarren omenaldia. Aurtur, sortu zeneko XXV. urteurrena ospatzen ari direla-eta, arduradunek ereserkiaren beharra ikusi dute. Oiartzabalengana jo zuten orduan, konposaketarako enkargua eginez. Oiartzabalek doinua osatu berri du, eta zeregin hauetarako lankide duen Berrondok hitzak jarri dizkio. Egun bereko gauerdian, 00:00etan zehazki, "Donostiako martxa" jo ondoren ereserki



Joxerramon Berrondo eta Joxe Mari Oiartzabal musikariak. AIURRI

berriaren estreinaldia egingo dute. Estreinaldi horretan egotera gonbidatu dituzte bi musikariak. Bide batez, esker oneko omenaldia eskainiko diete bie. Ekitaldian, Andoaingo hainbat musikariek parte hartuko dute. Izan ere, azken bost urteotan, elkarte horren danborradaren oinarri musikala Gora Kale Txiki txarangarena da.

Ibilbide emankorra

Emankorra da Oiartzabalek eta Berrondok azken urteotan osatu duten bikotea. Zazpi dira

dagoeneko sortu dituzten doinuak, guztiak ere SGAE Espainiako egile eskubideen elkartearen erregistratuak daudenak.

Aurtengo San Sebastian egunean, Gora Kale Txiki txarangak hiru danborradei doinua jarriko die. Santiagomendirekin ibiliko dira kalez kale, baina baita Deusto unibertsitatearekin eta Alzakako eskola publikoko guraso elkartearekin ere. Unibertsitatearekin goizeko 09:00tan arituko dira, eta guraso elkartearekin arratsaldeko 16:00tik aurrera.



ZABALIK

XABIER LASA BERGARA KAZETARIA

Dantza

Bastero. Ostirala. Urtarrilak 11. Dantza filma pantailan, eta mila begi hari iltzatuta. 500 buru, hainbat aburu. Hona euskal dantzan edota zinemagintzan zaletu arrunt baten sentsazio pertsonala. Bigarren aldiz ikusteko gogoz irten nintzen Basterotik, hasteko eta behin. Makina bat xehetasun bigarrenengoan harrapatuko nituzkeen esperantzarekin; sinbologia filmaren ardatzetakoa dela ezaguna baita. Lorpenak eta hutsuneak aipatuko ditut telegrafikoki, zutabetxo honek ematen didan espazioan. Lorpenen zerrenda amaigabea da, kasik. Estetikoki, plastikoki gozamen hutsa baita ikusleen begietara agertzen zaigun ikuskizuna. Meritua galanta, ordu eta erdi pasatxoan hainbat istorio (naturaren zikloa, lurraren ereitea eta uza biltzea, iraunbizitzekoko giza borroka, maitasun kontuak, ohiturak, jaiak, mitologia...) musika eta dantzaren eskutik soilik kontatzen jakin izan dutelako. Eta hori guztia, aktoreen ahotik hitz bakararra entzun gabe. Barka, une batean "Txotx!" aditzen da.

Meritua galanta ere, 250 dantzari bikain –Urkikoak tartean– dantzatzen eta antzezten armonia betean aritzeagatik. Lokalizazioak, paisaiak, argazkia, planoak, koloreen erabilpena... den-dena bikain neurtuta dago, obsesiboki neurtuta. Aurrerapen digital guztiak erabilia ere Hollywoodeko hobetu ezingo litzatekeena.

Alabaina, badira zenbait koreografia (Arantzazun edota Zarautzen) filmaren erritmoa moteltzera datozenak. Azken muntaiaren eszena horiek luuuuzegiak izan zitezkeela ez ote zen inor konturatu? Aurrez euskal dantzazaleen pazientzia irabazita dauka filmak, geure-geurearekiko dugun identifikazioagatik.

PAISAIA, ARGAZKIA... DEN-DENA BIKAIN NEURTUA DAGO, OBSESIBOKI NEURTUTA

Ordea, euskal folklorera lehenbiziko aldiz hurbilduko denaren begietara produktua erakargarri bilakatzea, hori ere lortu nahi bazen, ez dakit ba asmatu ote duten. Generoaren ikuspegitik ere ditut zalantzak: koreografia askotan gizonenak alde batetik doaz, eta emakumeenak bestetik.

Bikotea bi sexukoek osatzen dute... Hor uzten dut aztergaia, hausnarketa sakonagoak eginda dituenak iritzia osatu dezan.

*Ironiaz irakurri beharreko postdata: andoaindertasunaren ikuspegitik, euskal folkloreak eta dantza sinbolikoen argazkia osatu nahi bazen, barkaezina da Axeri Dantzarekin gogoratu ez izana. Jokin Otamendi filmaren protagonista nagusietakoa izateak ezin dezake leundu 'haserrea'.

"Musua" ikuskizun berriena Basteron eskainiko dute

Pirritx, Porrotx eta Marimotots pailazoei bi saio eskainiko dituzte Andoainen, urtarrilaren 26an

Erredakzioa ANDOAIN

Amalurrari, urtaroei eta izaki nahiz gizaki bizidunei estuki lotuta dagoen ikuskizuna taularatzen ari dira, Euskal Herri osoan barrena. Datorren asteburuan Basteron arituko dira,

hain justu ikuskizunaren muntaiarako erabili izan duten agertoki berean.

Leire Bilbao idazlea da diskoaren kantu bakoitzaren atarian hizlari, kontu kontari edota abeslari agertzen dena. Maisuki,

gainera. Hauze da, aurkezpen modura, idazleak landu duen aurkezpen iradokitzailea: "Mundua mundu denetik, eguzkia biraka ari da eta gu haren inguruan. Eta dei egiten dio lurrari esnatzeko, azaleko zorroak astindu eta moztortzeko. Mundua mundu denetik, hartzak kobazulora sartzen dira neguko solstizioetan eta kilkerak kanpora atera udakoetan. Eta guk dantzatu eta kantatu egiten dugu izan negu izan uda, egin arren euria, atera arren eguzkia, apur-

tu arren zeruan tximista... Ihauterietan, San Joanetan, Gabonetan ohitura zaharrak mantendu eta berriak sortzera jolasten dugu. Munduak biraka segi dezan. Eguzkiak ez ezik, musuek ere biraka jartzen dutelako mundua. Eta musuek biraka jartzen gaituztelako gu. Eta zu?"

Sarrerak martxa onean saltzen ari dira, baina oraindik ere eros-teko aukera badago. Basteroko lehiatilan, eta baita Kutxabanke sarreraren salmentarako duen gunean ere.



Bi saio eskainiko dituzte, arratsaldeko 16:00tan eta 18:30ean. KATXIPORRETA

On Bosko Krosa, Urnietan datorren otsailaren 3an

ATLETISMOA Bosgarren edizioa iristear da, Salesiar ikastetxean hasi eta amaitzen dena. Egun berean bi lasterketa antolatzen dira, lehena korrikalariarentzat eta bigarrena Nordic Walking lasterkariarentzat. Izena emateko epea zabalik dago

Erredakzioa URNIETA

Garai batean egiten zen lasterketa duela bost urte berreskuratu zuten. "Izan duen arrakasta ikusirik, aurten ere berriro antolatzea erabaki dugu. Lasterketa datorren otsailaren 3an izango da, igandearekin. Goizeko 11:00etan abiatuko da, eta bertan parte hartu eta momentu on bat pasatzera gonbidatzen zaituztegu". Horra, beraz, antolatzaileen gonbidapena.

Egun berean bi lasterketa

"Bi lasterketa izango ditugu. Lehenbizi atletismo lasterketa, ikastetxean hasi eta amaituko dena. 7 kilometroko ibilbidean Urnietako kaleak zeharkatuko dira. Lasterketa hori amaituta, 6 kilometroko luzera izango duen proba hasiko da Nordic Walkingeko lasterkariarentzat. Probara Euskal Herriko martxalari onenetsuak hurbilduko dira".

Izena emateko aukera www.herrikrosa.eus webgunean zabalik dago, eta baita ikastetxean bertan ere. Prezioa 10 eurokoa da. Krosa amaitu eta gero, lasterkariak ikastetxean bertan dutxa beroa eta hamaiketako hartzeko aukera izango dute. Eta goiza borobiltzeko, hainbat produktuen zozketa iragarri dute.



Iazko edizioako podiuma, Salesiar ikastetxeko helmugan bertan. AIURRI



Ipar Martxako lasterkariak, iazko edizioan, herrigunerako bidean. AIURRI

Kros lasterketa Elgoibarren

ATLETISMOA Joan zen urtarrilaren 13an, Elgoibarreko Mintxetan, Juan Muguerza nazioarteko 76. kros ezaguna ospatu zen. Zumeatarra kirol elkarteak elastikoarekin hiru korrikalari irten ziren: Javi Menta (Denbora: 40:35. Postua: 92), Jaime Real eta Oier Escudero. Kipruto keniata gailendu zen 32:05 denborarekin, Barega etiopiarrari 22 segundu ateraz.



ION ZUGASTI



Mikel Iturria eskuinean, iazko Espainiako Vueltan. PHOTO GOMEZ SPORT

Iturria eta Murias-Euskadi denboraldi berria hastear dira

TXIRRINDULARITZA Taldeak denboraldiko aurkezpen ofiziala egingo du Errenterian, urtarrilaren 23an

Erredakzioa URNIETA

Jendaurreko lehen ekitaldi ofiziala izango da, txirrindularien eta mailot berrien aurkezpena egiteko. Errenteriako protokolozko ekitaldia eta gero, Espainian eta Frantzian egingo ditu lehen lasterketak: Mallorcako Challenge lasterketa sorta urtarrilaren

31tik otsailaren 3ra eta Grand Prix Cycliste la Marseillaise lasterketa otsailaren 3an. Mikel Iturria urnietarra taldekideen artean dago, profesional mailan urte bat gehiago aritzeak ematen duen eskarmentuarekin. Iazko denboraldia berdintzea ez litzateke txarra izango.



Olatz Odriozola urnietarra. CICLOCROSS VIVO

Olatz Odriozola urnietarra, beste urte bat elitean

TXIRRINDULARITZA Hainbat probatan garaile ibili eta gero, Espainiako txapelketan podiumetik kanpo geratu zen

Erredakzioa URNIETA

Errege egunean egin zuen urteko lehena, Ormaiztegi ziklo kros lasterketan. Ezin hobea izan zen urte hasiera, txapelketa izan baitzen. Bere FB orrialdean adierazi zuenez, "lasterketa ona

izan da, lehen itzulian aurkariak erreparatu eta bigarren itzulian errematea eginez. Aurreko asteburuan Espainiako txapelketan, ordea, zazpigarren sailkatu zen. Gazte belaunaldia sasoiko datorrela dirudi.



Iaz, San Juan jaien atarian jokatu zen finala. AIURRI

Hamazazpi talderekin abiatu da areto futbol txapelketa

ARETO FUTBOLA Andoaingo areto futbol txapelketa Sportmadness Gipuzkoa enpresa antolatzen hasi da

Erredakzioa ANDOAIN

Joan zen asteburuan lehen jardunaldia jokatu zen, eta asteburu honetan bigarrena iritsiko da. Lehen fasea liga sistemaren arabera garatuko da eta denera 18 jardunaldi izango dira. Ondoren kanporaketei ekingo diete. Hamazazpi talderekin abiatu

da txapelketa: Aker Beltz Talberna, D.A.D. Kutxa, Keler, La Almazara, Ekhia, Ganbara, Brigogoros, Lanbroa, Carpinteria Antonio, Brew & Roll, Pausoka elkartea, Academia G.F., Ganbara, Rayo Andoain, Irunberri KE, Autoescuela Mendi eta Andoaingo Batzokia.



Iker Hernandez. CLUBBOLÍVAR

Europatik Amerikara jauzia egin du Iker Hernandez urnietarrak

FUTBOLA Herbehereako Den Bosch taldean minuturik jokatzen ez zuela eta, Boliviako Bolívar taldera jauzi egin du Urnietako jokalaria. Urte berriarekin batera eman da aldaketa, eta jokalaria orain arte Europan izan ez duen jarraipena Amerikan lortu nahi du. Urnietarrak bi urterako hitzarmena sinatu du. Ea zortea aldeko duen.



Nahikari Garcia. REALSOCIEDAD

Goleatzaile onenen artean dago Nahikari Garcia

FUTBOLA Espainiako selekzioarekin jokatzeke deitu dute berriki, eta Ligan golak egiten darrai. Dagoeneko liga osoko goleatzaileen artean dago. Aurtengo denboraldia garrantzia handikoa da, Frantziar Munduko futbol txapelketa jokatuko baita. Gauzak ondo, urnietarra Espainiako selekzioiko kideen artean egongo da.



Urnietako pala motzeko jokalaria. UKE

Euskal Herriko txapelketako partidak Urnietako pilotalekuan

PILOTA Euskal Herriko pala motzeko txapelketa jokatuko da Urnietan, ostiral honetan. Senior mailakoa da, eta 20:00tan hasita Urnietako taldea Gasteizko Adurtza A taldearen aurka arituko da. Jarraian, Ordizia eta Mungia elkarren aurka arituko dira.

Senior mailan ere, Udaberri txapelketako gomazko paleta partidak jokatuko dira. Urnietarrek Tolosan eta Azpeitian partida bana jokatuko dute.



Jon Gaztañaga. AELLIMASSOL

Gaztañagarentzat garrantzia handiko partida igandean

FUTBOLA Zipren ezinbestekoa bilakatu da andoaindarra, AEL Limasol taldean. Asteartean Orokliniren zelaian 1-3 irabazi eta gero, bigarren postuan sailkatuta daude. Apoel FC dago lehen postuan, 38 punturekin. AEL Limasolek, berriz, 37 puntu ditu. Igandean, 15:00etik aurrera, Gaztañagaren taldeak Apoel taldea hartuko du etxean.

KARTELDEGIA: FUTBOLA, ESKUBALOIA

FUTBOLA

PREFERENTE MAILA

EMAITZA

Euskalduna-Urnieta 2-0

SAILKAPENA

- | | | |
|----|------------|----------|
| 1 | Euskalduna | 43 puntu |
| 2 | Mundarro | 36 puntu |
| 3 | Billabona | 31 puntu |
| 12 | Urniet | 16 puntu |
| 13 | Orioko | 12 puntu |

ASTEBURUKO PARTIDAK

17:30 Mariño-Euskalduna / Lar, 19

11:45 Urnieta-Roteta / Ig, 20

ERREGIONAL MAILA

EMAITZA

Euskalduna-Axular 0-5

SAILKAPENA

- | | | |
|---|------------------------|----------|
| 1 | Danena | 35 puntu |
| 6 | Astigarragako Mundarro | 24 puntu |
| 7 | Euskalduna | 18 puntu |
| 8 | Vasconia | 18 puntu |

ASTEBURUKO PARTIDA

17:45 Danena-Euskalduna / Lar, 19

JUBENIL MAILA, OHOREZKOA

EMAITZA

Zumaiako-Euskalduna 3-1

SAILKAPENA

- | | | |
|----|------------|----------|
| 1 | Billabona | 35 puntu |
| 13 | Urki | 18 puntu |
| 14 | Euskalduna | 17 puntu |
| 15 | Ostadar | 15 puntu |

ASTEBURUKO PARTIDA

16:30 Euskalduna-Billabona / Lar, 19

JUBENIL MAILA, KOPA

EMAITZAK

Euskalduna-Danena 1-1
Urniet-Sanse B 2-1

SAILKAPENA

- | | | |
|---|------------------------|---------|
| 1 | Urniet | 3 puntu |
| 2 | Astigarragako Mundarro | 3 puntu |
| 3 | Euskalduna | 1 puntu |
| 4 | Danena | 1 puntu |

ASTEBURUKO PARTIDAK

15:30 Usurbil-Euskalduna / Lar, 19

12:45 Vasconia-Urnieta / Lar, 19

ESKUBALOIA

SENIOR MAILA

EMAITZA

Urniet-Donibane 34-29

SAILKAPENA

- | | | |
|---|-----------|----------|
| 1 | Munttarpe | 16 puntu |
| 4 | Urniet | 13 puntu |

ASTEBURUKO PARTIDA

18:45 Soraluze-Urnieta / Lar, 19

SENIOR MAILA, NESKAK

EMAITZA

Ordizia-Leizaran 25-30

SAILKAPENA

- | | | |
|---|---------------|----------|
| 1 | Urbil Usurbil | 18 puntu |
| 3 | Leizaran | 14 puntu |

ASTEBURUKO PARTIDA

12:00 Zeppelin-Leizaran / Ig, 20

JUBENIL MAILA

EMAITZA

Leizaran-Ereintza Aquaplast 29-39

SAILKAPENA

- | | | |
|---|--------------------|---------|
| 1 | Ereintza Aquaplast | 8 puntu |
| 6 | Leizaran | 1 puntu |

ASTEBURUKO PARTIDA

17:30 Hettich-Leizaran / Lar, 19

EMAITZA (13-18 POSTUAK)

Urniet-Beristain 22-29

SAILKAPENA

- | | | |
|---|--------------------|---------|
| 1 | Beristain Elgoibar | 8 puntu |
| 2 | Urniet | 6 puntu |
| 3 | Aloña Mendi | 4 puntu |

ASTEBURUKO PARTIDA

20:00 Donibane-Urnieta / Lar, 19

JUBENIL MAILA, NESKAK

EMAITZAK

Ereintza Beissier-Urnieta 18-12
Leizaran-Elgoibar 20-24

SAILKAPENA

- | | | |
|---|----------|---------|
| 1 | Elgoibar | 8 puntu |
| 4 | Leizaran | 3 puntu |
| 5 | Urniet | 2 puntu |

ASTEBURUKO PARTIDAK

12:15 Urnieta-Leizaran / Lar, 19

Garaipen garrantzitsuak

ESKUBALOIA UKE eskubaloiko lehen taldeak garaipen garrantzitsua lortu zuen, Donibanerentz aurka (34-29). Lehen itzulia amaitzean, laugarren postuan daude lidergoetatik 3 puntura. Argazkian, partida ona egin zuen Eneko Urruzola. Bigarren taldeak ere garaipena lortu zuen Corazonistasen aurka (27-24). Lehen postuan daude.



UKE

HITZORDUAK

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEARTEKO EGUERDIA BAINO LEHEN. Tel.: 943 300 732 / andoain@aiurri.eus

OSTIRALA 18

URNIETA Ipuin kontaketa

Ipuin kontaketa saio berria, Marisa Taberneroren eskutik.

17:30, Lekaio.**URNIETA Parte hartzea**

Udal inbertsioetan parte hartzeko prozesua zabaldu du Udalak. Informazio karpa ipiniko du.

10:00-14:00, Etxeberri plaza.**17:00-20:00, Guria ondoan.****ANDOAIN Inauteriak**

Otsailaren 28an hasi eta martxoaren 3ra bitarte, Inauteriak Andoainen.

Basterok proposamenak luzatzeko epea zabaldu du.

Proposamenak aurkezteko epea: Urtarrilak 18. Bastero.**ANDOAIN Erakusketa**

Frederic Gutierrez Bardenen 'Izakia eta itzalen artean' erakusketaren irekiera, datorren otsailaren 23ra arte zabalik izango dena. Ordutegia ohikoa izango da.

19:00, Bastero. Irekiera ekitaldia.**ANDOAIN Lehiaketa**

"Andoain Laburrean" bideo lehiaketa, 16 urtetik gorakoei zuzendutakoa. Oinarriak eta sariketari buruzko informazioa andoainarraeuskaraz.eus webgunean.

Proposamenak aurkezteko epea: Urtarrilak 31, Bastero.

LARUNBATA 19

URNIETA Parte hartzea

Udal inbertsioetan parte hartzeko prozesua zabaldu du Udalak. Informazio karpa ipiniko du datozen bi egunetan, toki ezberdinetan.

10:00-14:30, Kiroldegiaren atarian.**ANDOAIN Ate irekiera**

Aita Larramendi ikastola (2019-20 ikasturterako matrikulazioa). Info: andoainkastola.eus.

10:30, Bazkardoko egoitza.**ANDOAIN Ate irekiera**

La Salle Berrozpe ikastetxea (2019-20 ikasturterako matrikulazioa). Info: lasalleberrozpe.eus.

11:30, Berrozpe.**"Turista" taldea, 2018ko inauterietan. AIURRI****ANDOAIN 2019ko inauteriak antolatzen hasteko lehen bilera**

Taldea, elkarte, konpartsa eta herritarrei zuzendutako deialdia egin du Kultura Batzordeak, aurtengo inauteriak antolatzen hasteko. Otsailaren 28an Ostegun Gizena ospatuko da, eta biharamunean Ostiral Mehea. Andoaingo inauterien egun handia larunbatean izango da, karroza eta konpartsen desfilearekin.

Urtarrilak 28, astelehena. 19:00, Urigain.

ASTEARTEA 22

ANDOAIN Ate irekiera

Ondarreta ikastetxea (2019-20rako matrikulazioa). Info: ondarreta.ikastetxea.net.

17:00, Arteta kalearen atzealdea.

ASTEAZKENA 23

URNIETA Ate irekiera

Egape ikastola (2019-20 ikasturterako matrikulazioa). Info: egape.org.

17:00, Etxeberri plaza.

OSTIRALA 25

ANDOAIN Antzerkia

"Lo mejor de Yllana" antzezlan, antzerki konpainiaren 25 urteko ibilbide oparoaren ospakizuna.

21:30, Bastero. 15 euro.**URNIETA Lehiaketa**

Diaporama lehiaketan parte hartzeko azken eguna. 15 urtetik gorakoentzat, lanak urnieta.eus edota gazte informazio puntuan aurkeztu behar dituzte.

Lanak aurkezteko azken eguna.

LARUNBATA 26

URNIETA Ate irekiera

Magale (2019-20rako matrikulazioa). Info: magaleikastetxea.eus.

17:00, San Juan 1 kalea.**ANDOAIN Pailazoak**

"Musua" Pirritx, Porrotx eta Marimototsen eskutik.

16:00, 18:30, Bastero. 6 euro.**URNIETA Antzerkia**

"Sorginak sutara" antzezlan.

18:00, Sarobe.

ASTELEHENA 28

ESKUALDEA Matrikulazioa

2019-20. ikasturtea: Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza eta DBH).

Urtarrilak 28-Otsailak 8.


OSTEGUNA 31

URNIETA Deialdia

Ordenantza fiskaletan hobaria eskatzeko epea zabalik dago. Argibideak: Bertan, Urnieta.eus.

Azken eguna: Urtarrilak 31.

ZINEMA

ANDOAINAstelehena, 21:
19:30; 22:00.
Ikuslearen eguna.**BASTERO****Kutsidazu bidea, Ixabel**
Ostirala, 18: 20:15.**El gran baño**
Larunbata, 19:
19:30; 22:00.
Igandea, 20: 19:30.**Asterix: edabe magikoaren sekretua**Larunbata, 19:
17:00. Euskaraz.
Igandea, 20:
17:00. Euskaraz.**URNIETA****SAROBÉ****La pequeña bruja**
Igandea, 20: 17:00.**Condorito**
Igandea, 27: 17:00.**Trukitrek, Mr Train:**
Igandea, 3: 17:30.

SINOPSISIAK

**Asterix: edabe magikoaren sekretua****Zuz.:** Alexandre Astier eta Louis Clichy. **Herr.:** Frantzia (2018).**Gidoia:** Astier. **Iraupena:** 86 minutu. **Hizkuntza:** Euskara.

Galiarren abentura berriak

Panoramixek herrixkaren etorkizuna ziurtatu nahi du. Astérix eta Obélix lagun

dituela, edabe magikoaren sekretua erakusteko druidaren bila abiatuko dira.

El gran baño**Zuz.:** Gilles Lellouche. **Herr.:** Frantzia (2018). **Generoa:** Komedia.**Iraupena:** 118 minutu. **Hizkuntza:** Gaztelania. **Adina:** 12 urtetik gorakoentzat. **Aktoreak:** Amalric, Canet, Poelvoorde,...

Adinaren krisiari aurre egin nahian

Berrogei urtetik gorako gizonezkoak, existentzia krisian murgilduta. Zer egin ez dakitela, gizarteak estuki marraztutako bidetik irteteko, xelebrekeria egitea bururatu

zaie: igeriketa sinkronizatuko taldea osatzea. Hasiera ezin daiteke okerragoa izan. Kalitatean gora egiteko emakumezko igerilari ohia kontratatzea erabakitzen dute.

Mapa toponimiko berria

Andoaingo Udala mapa toponimiko eta kale izendegi berria banatzen ari da egun hauetan, etxebizitza guztietan. SGSmap enpresa ekoizpen lana aurrera ateratzeaz arduratu da, Diego Barrasa eta Eduardo Arreseygor andoaindarren argazkiekin osatu dena. Kartografiarako Jaurilaritzaren irizpideak jarraitu dituzte, eta izendegirako Euskaltzaindiakoak.



ZORION AGURRAK



ANDOAIN
Nemesio Zatarain
Urtarrilaren 23an urteak beteko dituzu. Zorionak etxekoan partetik eta batez ere hiru biloben partetik: Unax, Aner eta Oinat.



ANDOAIN
Izorne Tena
Zorionak, Izorne!!! Otsailaren 3an 24 urte bete. Segi beti bezain sinpatika izaten. Muxu asko Ibai, Asun, Aritz, Leire eta Iñakiren partetik!



ANDOAIN
Sara & Aner
Zorionak bikote, urtarrilaren 14an 8 urte bete zenituztelako. Handitzen jarraitu. Muxu erraldoia etxekoan partez!!! Amatxo eta aitabxo.



ANDOAIN
Axel
Urtarrilaren 24an, Axelek 8 urte beteko ditu! Muxuak etxekoan partetik, asko maite zaitugu eta jarraitu beti bezain alai eta jator!



URNIETA
Asier
Zorionak Asier, urtarrilaren 23an 8 urte beteko dituzu! Zorionak futbolzale handiari eta etxeko txikiari! Muxu erraldoia etxekoan partetik.

Urte askotarako!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak. Oso erraza da, eta dohainik:

www.aiurri.eus
webgunea
"Zorion agurrak" atalean, fitxa osa ezazu. Urtebetetze egunera bitarte, ikusgai izango da webgunean. Ez dadila tamaina handiko argazkia izan. Tamaina editatzerik ezean, erabili ezazu posta elektronikoa.

diseinua@aiurri.eus
Mezua eta argazkia bidali, herria zehaztuz.
Arantzibia 4-5, behea.
Andoain
943 300 732.
Whatsappez:
619 16 35 37
Mezua eta argazkia bidali Aiurriko posta elektronikora, herria zehaztuz.

GUARDIAKO FARMAZIAK

ANDOAIN

Larunbata 19 eta igandea 20
PAJARES: Zumea kalea, 20.
943 592 629. Andoain.

URNIETA

Larunbata 19 eta igandea 20
ETXEBARRIA: Andre, 48. "Cuevas".
943 551 793. Hernani.
GAUEZ, BI HERRITAN: ALDABE.
943 336 022. Hernani.

Hitzaldia eta tailerra DYAren eskutik

Urnietako San Juan kalean duten egoitzan bi jarduera antolatu dituzte, datorren asterako. Lehen sorospenak azaltzeko hitzaldia urtarrilaren 23an, eta bihotz biriketako suspertze tailerra urtarrilaren 26an. Izena emateko epea zabalik dago

Erredakzioa ANDOAIN

Ongizatea eta osasuna sustatzeko asmoz, DYAk Irakaskuntza Eskolak datorren asterako bi jarduera antolatu ditu Urnietan:

Hitzaldia:
Lehen Sorospenak
Urtarrilak 23, asteazkena.
19:00-21:00. Urnieta.

Doako Hitzaldi irekia da, larrialdien edo istripuen aurrean zer egin eta zer ez egin jakin nahi dutenei zuzenduta. Aztergaiak: itolarriak, zauriak, erredurak, traumatismoak, bularreko minak, isurketak, garuneko tronbosiak, konbultsioak, konorte galerak,...

Tailerra:
Bihotz-biriketako suspertzea
Urtarrilak 26, larunbata.
17:00-19:00. Urnieta.

Familia osoari zuzendutakoa. Helduak (aita/ama, aitona/amon, osaba/izeba...) 6 urtetik gorako hiru umeekin eman dezake izena. 2 ordutan, eta modu erraz eta praktikoa batean, bihotz-geldialdia identifikatzen eta honen aurrean jokatzeko ikasiko dute. Gainera, etxeko txikienekin al-darte ona pasatzeko aukera paregabea izan daiteke. Lantegiaren kostua 8 eurokoa helduentzat, eta doakoa 17 urtetik beherako guztientzat.



Hitzaldia eta tailerra DYAk Urnietan duen ordezkartzan eskainiko dira, San Juan kaleko 42. zenbakian. DYA

Hitzaldian parte hartzeko edota tailerra egiteko asmoa duenarentzat, tokia mugatua dela jakinarazi dute antolatzaileek. Aldez aurretik izena emateko aholkua luzatu dute.

**"GIZATASUNAREN
ETORKIZUNA
HOBEAGOA
IZAN DADIN
EGITEN DUGU LAN"**

Jarduerak DYAk Urnietako ordezkartzan eskainiko dira, San Juan kaleko 42. zenbakian. Izen emateko edota informazio osagarria eskuratzeko hauxe da telefono zenbakia: 943 46 46 22.



ESKELAK JARTZEKO: 943 300 732
edo publizitatea@aiurri.eus

- Hileta egunean eskela Aiurri.eus-en + Oroigarria edo Esker ona Aiurri astekarian eta Aiurri.eus-en: 160 € + BEZ / Aiurriko harpidedunentzako 90 € + BEZ /
- Eskela mota guztiak Aiurri astekarian + Aiurri.eus-en: 140 € + BEZ / Aiurriko harpidedunentzako 90 € + BEZ

Eskelak Aiurriin: 90 euro

**DOBERAK
DINAMIZATZAILEA
BEHAR DU
amatasun baja dela eta.**

Bidali zure Curriculum Vitae-a,
urtarrilaren 21era arte:
dobera@dobera.eus



Dobera Euskara
Elkartea
Lanramendi 11
behea
20.120
HERNANI

ESKATZEN DA:

- Euskara ondo menperatzea hitzez zein idatziz.
- Ofimatik programak eta teknologia berriak menperatzea.
- Hitzkuntza normalizazio lanetan eskarmentuz: koordinazio eta kudeaketa, administrazioa, aisialdia, kultura...

BALORATUNO DA:

- Euskara elkarrean ezagutza eta lan eskarmentua.
- Harremanetarako gaitasuna.
- Iniziatiba izatea.
- Gida baimena eta kobea.
- Dobera-Kronikako bazkide izatea.

ESKAINIKO ZABO:

- Eginkizunari dagozkion soldata eta lan baldintzak.

Baldintzak betetzen dituzteren artean probak egin ondoren bat aukeratzeko da.



Aurreko Korrika edizioa. AIURRI

Korrika batzordea osatzeko bilera Andoainen, datorren urtarrilaren 21ean

KOMUNITATEA

AEK ANDOAIN

Korrika, 2019ko apirilaren 4tik 14ra bitartean, Garestik Gasteiza bidean burutuko da. Andoai-dik barrena apirilaren 13an igaroko da, goizaldeko 02:30ak aldera. Ekimen erraldoia arrakastatsua izan dadin, herritar ororen partaidetza eta laguntza ezinbestekoa dugu. Hori dela eta, Andoainen Korrika batzordea sortu nahi dugu, euskaltzaleei eta interesa duen edozein herritarri antolaketan parte hartze-ko aukera emanez. Lehen bilera datorren urtarrilaren 21ean izango da, 19:00tik aurrera Andoaingo AEK euskaltegian.

AZKENA



Salkin elkarteko lehendakari Orte, Nerea Jauregi irabazlea, Gloss dendako Palacios eta Ormendiko Mendizabal. AIURRI

Prezio zehatzetik xentimotara

2.047 euro, horixe irabazlearen apustua. Baita irabazi ere, eta gutxiatik ez zuen bete-betean asmatu. Prezioa zehatza 2.047,09 eurokoa baitzen. Hainbeste eta hain produktu ezberdinak izanik, Nola lortu zuen? Produktuz produktu kalkulua egiten aritu zela adierazi zuen. Zenbaitetan, erosle bezala pilatu duen eskarmentuari egin zion kasu. Eta besteetan, oso argi ez zuenean, internet sarean kontsulta eginez.

Salkin elkartearen saria

Ikusgarria izan da Andoaingo Salkin merkatarien elkarteak Eguberri hauetarako erosleei eskaini dien saria. Sari potoloa, hainbat produktu ezberdinez osatutakoa. Prezio zehatza asmatu behar zen, eta askotxo izan dira parte hartzera animatu direnak

Xabier Lasa ANDOAIN

Erakuslehoian ikusgai jarritako produktuek 2.047,09 euroko prezioa osatzen zuten, eta Nerea

Jauregi irabazleak bere txartel-txoan 2.047 euro ipini zuen. Oso-oso gertu ibili zen, hortaz. Salkinek ostiralean egin zuen sari

ematearen ekitaldia, Xixori belardendari ikusgai egon den erakuslehoiaren aurrean. Irabazleaz gain, bertan izan ziren Luis

Angel Orte Salkin elkarteko lehendakaria, Sandra Viera elkarteko dinamizatzailea, Gloss jantzi dendako Manoli Palacios eta Ormendiko kirol dendako Izaskun Mendizabal.

Sandra Viera dinamizatzailea pozik azaldu zen lehiaketak izan duen harrera onagatik. Askotxo izan direlako parte hartu dutenak. Izan dira begi zorrotzez aritu dutenak, eta izan dira goitik zein behetik prezio zehatzetik urrun ibili direnak ere.

MATRIKULA ZABALIK! URTARRILAREN 28tik OTSAILAREN 8ra



EGAPE

Urrietarren
ikastola
publikoa



ATE IREKIAK ETA
BILERA INFORMATIBOA
BILERA 2 URTEkoentzat
Urtarrilak 23, Etxeberri Plaza, 17:00
BILERA DBHkoentzat
Urtarrilak 21, Azkorte, 17:00

www.egape.org / www.egapebhi.org

